ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	**2020IPLE0006**
ATALA.	**IDAZKARITZA**
GAIA	**ALBIZTURKO UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA**

2020-09-28ko UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

Albizturren, 2020ko irailaren 28an, goizeko 9:17tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Larraitz Ezeiza Artola

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Mikel Galarza Arrue
- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Unai Dorronsoro Olarra
- Aingeru Galarraga Barandiaran

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. PLAN OROKORREAN EGIN BEHARREKO ALDAKETAK
4. HAUR PARKEKO HESIA
5. “PURO RELAJO”-REN KONTZERTUA
6. GORKA ARANDIAREN EGURTOKIA
7. HAURRESKOLA IREKI AHAL IZATEKO DIRULAGUNTZA
8. ESTRAESKOLARREN INGURUKO ERABAKIA
9. GURASO ELKARTEAREN DIRULAGUNTZA ESKAERA
10. KZ GUNEAREN ERABILERA ZAINTZARAKO
11. KZ GUNEAREN ERABILERA COVID GELA MODUAN
12. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2020-07-28ko akta aho batez onartu da.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2020ko 73 eta 85 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. PLAN OROKORREAN EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Albizturko Plan Orokorra 2018. urtean sartu zen indarrean, baina aldaketa batzuk egin beharra ikusten da:

Etxebizitza zaharrak eraberritzeko prozesuan muga betekin topatu gara: Hirigunean (zona urbana) dauden etxebizitzak gehienez 3tan zati daitezke eta zati bakoitzak gutxienez 125 m2 izan behar ditu.

Metro karratu asko dituzten etxebizitzak badirenez eta gaur egungo beharretara egokitu nahirik, gure asmoa gehienezko etxebizitza kopurua kendu eta gutxienezko m2 kopurua 40koa izatea da.

Horretarako beharrezkoa da Albizturko Plan Orokorra aldatzea, eta behin prozesua irekita beste garrantzi gutxiagoko aldaketa batzuk egiteko ere aprobetxatuko dugu.

Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Albizturko Plan Orokorraren aldaketa prozesua martxan jartzea.

Bigarrena.- Egin nahi diren aldaketa guztiak zehaztu eta Gipuzkoako Aldundiarekin bilera tekniko bat egitea aldaketa horien bideragarritasunaren inguruan.

4. HAUR PARKEKO HESIA

Haur parkeko hesia oso hondatuta dago eta aldatu egin behar da.

Ohikoa den moduan, Albizturko Udalak 3 aurrekontu eskatuko ditu eta eskaintza egokiena egiten duen enpresa aukeratuko du.

5. “PURO RELAJO”-REN KONTZERTUA

Aurtengo Albizturko jaietarako “Puro Relajo” taldearen kontzertua aurrikusita zegoen eta kontratu bat sinatu zuen Albizturko Udalak beraiekin.

COVID-19aren pandemia dela eta, bertan behera geratu zen abuztuko kontzertua, baina kontratu berri bat sinatu zen urriak 10erako.

Kontratuak 3.000 €-ko kostua zuen, eta COVID-19aren pandemia dela eta, 15 eguneko aurrerapenarekin gutxienez kontzertua bertan behera uztea erabakitzen bagenuen, kostuaren heren bat ordaindu beharra genuen. Bestela kopuru guztia.

Gaur egun COVID-19a dela eta bizi dugun egoera ikusirik, kontratuaren klausula hori aplikatzea da zentzuzkoena, oso konplikatua baita Albizturko Udalak dituen baliabideekin kontzertu hori protokolo guztiak jarraituz antolatzea.

Gaia landu ondoren Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- "Puro Relajo" taldearen kontzertua bertan behera uztea.

Bigarrena.- "Puro Relajo" taldeari erabakiaren berri eman eta kontratuan adostutakoaren herena ordaintzea.

6. GORKA ARANDIA-REN EGURTOKIA

Gai hau, printzipioz, Alkatearen eskuduntza da, eta ez da beharrezkoa Osoko Bilkuratik pasatzea. Baina erabaki garrantzitsua denez eta aurrekari bat duenez, Osoko Bilkuran aztertzea erabaki dugu.

2016ko abenduaren 1ean egindako inspekzio batean, Gorka Arandia-ren etxean eustormaren aurrean estalki bat zegoeala jabetu zen Albizturko Udala.

2017ko azaroaren 13an, 184/2017 Alkatetza Dekretuaren bidez, hilabeteko epea eman zitzaion estalkia legeztatzeko.

2018ko urtarrilak 19an, udal arkitektoak informe tekniko bat idatzi zuen, Egurtoki eta Portxeen Udal Ordenantza onartu arte, ezin zela erantzunik eman azalduz.

Behin Ordenantza onartuta, 2020ko uztailak 1ean, 62/2020 Alkatetza Dekretu bidez, estalkiak ez zituela egurtoki baten ezaugarri teknikoak, eta beraz, ezin zela legeztatu erabaki zen.

2020ko abuztuaren 4ean, Iñaki Zulaika Ezenarro teknikoak sinatutako geoeuskadi-ko irudi batzuei sarrera eman zitzaien Albizturko Udalean. Irudi hauetan ikus daiteke 2011n ez zegoen elementuren bat eraiki zela 2012an estalkia dagoen lekuan.

Irudi hauen inguruan Albizturko Udaleko arkitektoak eta abokatuak txosten tekniko bana idatzi dituzte, eta irudi eta txosten hauek aztertu ondoren, espedientea hasi zenerako 4 urte igarota zeudenez, preskribatutzak jotzea eta estalkia ordenazioz kanpo "fuera de ordenación" izendatzea adostu da.

Alkatea ere ados dago, eta Alkatetza Dekretu bidez gauzatuko da erabakia.

7. HAURRESKOLA IREKI AHAL IZATEKO DIRULAGUNTZA

2020ko maiatzak 26ko Osoko Bilkuran, COVID-19aren pandemia dela eta haurreskolak irailean 3 haur izateko arazoak izan zitzakela eta, Albizturko Udalak haurreskola irekita mantentzeko beharrezko neurriak hartuko zituela erabaki zen.

Irailean kurtsoa hasi zenean 2 haur zeuden ziurtatuta, eta Albizturko herritar bati bere haurra ere haurreskolara eramateko eskatu zitzaion, haurreskola ireki ahal izateko.

Momentuz Albizturko Udala egingo da Albizturko herritar horren haurraren haurreskolako ordainketen kargu, baina haurreskolan beste haurren bat hasten den bitartean soilik.

Bestalde, Albizturren haurren jaiotze tasa handitu nahi denez, eta 3. haurra izan duten familia batzuk badaudenez, agian egokia izan daiteke 2021. urteari begira familia ugarientzat haurreskolarako dirulaguntza bat sortzea.

8. ESTRAESKOLARREN INGURUKO ERABAKIA

COVID-19aren pandemia dela eta, aurtengo ikasturtea berezia izango da estraeskolarrak antolatzerako orduan ere.

Albizturko Udalaren asmoa, orain arte martxan zeuden estraeskolar guztiekin jarraitzea da, beti ere beharrezko neurri eta protokolo guztiak kontuan hartuta.

Arazoa Albizturko Udalak eskaintzen ez dituen estraeskolarrekin sortu da; orain arte herritar batzuk Bidania-Goiatz-era joaten ziren futbola eta beste jarduera batzuk egitera, baina Bidania-Goiatz-eko estraeskolarrak antolatzen dituen guraso elkarteak ez du nahi burbujak haustea, eta aurten ezingo dute.

Era berean, Bidania-Goiatz-eko haurrak ere ez dira etorriko Albizturra bertan antolatzen ditugun jardueretara.

9. GURASO ELKARTEAREN DIRULAGUNTZA ESKAERA

Bizkor Guraso Elkarteak 2020-2021 ikasturteko goizeko zaintza ordaintzeko dirulaguntza eskatu dio Albizturko Udalari.

Iazko ikasturtean 500 €-ko dirulaguntza eman zitzaien kurtso amaieran egiten duten irteerako autobusa ordaintzeko, baina azkenean ez zuten egin irteera.

Beraz, gauza guzti hauek argitzeko, Bizkor Guraso Elkartearekin bilera bat egitea erabaki da.

10. KZ GUNEAREN ERABILERA ZAINTZARAKO

Bizkor Guraso Elkarteak 2020-2021 ikasturteko goizeko zaintza egiteko KZ Gune-ko gela erabiltzeko eskaera egin dio Albizturko Udalari.

Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Bizkor Guraso Elkarteari KZ Gunea erabiltzeko baimena ematea.

Bigarrena.- Erabakiaren berri ematea Bizkor Guraso Elkarteari.

11. KZ GUNEAREN ERABILERA COVID GELA MODUAN

Albizturko eskolak 2020-2021 ikasturterako COVID gela moduan KZ Gunea erabiltzeko eskaera egin dio Albizturko Udalari.

Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Albizturko eskolari KZ Gunea erabiltzeko baimena ematea.

Bigarrena.- Erabakiaren berri ematea Albizturko eskolari.

12. GALDERA ERREGUAK

- Azarola Goikoa-ra doan errepideari buruzko dokumentua: Artxiboan begiratuz 1986. urteko dokumentu bat topatu dugu. Garai hartan berritu zen bidea, eta sinatu zuten kontratuan nahiko garbi geratzen da errepidea pribatua dela, baina jabeak behartuta daudela bertatik pasoa uztera (servidumbre continua de paso público por tiempo indefinido). Hala ere, gauzak gehiago argitzeko espedienteko froga fasearekin jarraituko dugu, eta galdetegia pasako diegu hainbat herritarri.

Osoko bilkura, 11:00tan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2020ko urriaren 5ean

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 12:59:05 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.26 09:11:12 +02'00'